



LEZEAREN OROIMENA*

- Mintzaldi zikloa Sarako lezeetan -

Arbasoen gizarte-bizitza, naturarekin elkarrekintza, ohituren eta sinesmenen transmisioa... gure iragana, gure ondarea eta gure kulturaren sustraien ezagutzeak gure egungo gizarte-bizitzaren oinarriak hobeki ulertzeko aukera ematen digu.

Mintzaldi ziklo bat abiatu nahi izan dugu, denok gure historiaren zatiak ezagutu edo berraurkitu aukera izan dezaten. Euskaraz edo frantsesez izanen dira (hizlarien arabera), urrik eta guztientzako idekiak.

Hilean behin, adituak edo/eta sutsuak Sarako lezeetara hurbilduko dira euren gai gustukoenaren inguruko aurkikuntzak eta ezagutzak partekatzera.

Udako pausa

Uda hontan, gure gaualdiak pausan ezarri ditugu, jarduera berri bat antolatzeko, beti gure ondareari lotuta. CPIE euskal itsasbazterrak, Pirinio Atlantikoetako departamendu kontseiluak eta Sarako Lezeek urrik izanen den ateraldi bat antolatuko dute.

Sarako Lezeen inguruan izanen da. Aberastasun natural eta arkeologikoak askotan ezezagunak direnak ikusiko ditugu, gizakiaren eta mendiaren arteko elkarbizitza agertuz.

HARREMANETAN JARTZEKO :

- François POUYET, Sarako lezeen zuzendaria :
Tel : +33 6 81 33 51 60 - Eposta : sarakolezea@gmail.com
- Imanol AMESTOY, CPIE Euskal Itsasbazterra-ren misio arduraduna
Tel : - Eposta : iamestoy@hendaye.com
- Argitxu ACHERITOGARAY, komunikazio digitala :
Tel : +33 6 70 08 19 52 - Eposta : mail@argizar.com

2022ko Agorrilaren 19an

GURE ONDARE NATURALA ETA HISTORIKOA ELKARTZEN DIRENEAN...!

Imanol Amestoy-ek (CPIE euskal itsasbazterra) gidatuko duen ateraldia.

Noiz : Agorrilaren 19an, ostiralean, 9:00etatik 12:30etara.

Nondik : Sarako lezeen aparkalekutik.

Hizkuntza : frantsesa.

Baldintzak : urririk izena emanez (kopuru mugatua).

Distantzia eta desmaila : 4,5 km eta 400 m-ko desmaila.

Zailtasun maila : mendizaleentzat.



Zatoz Imanol Amestoy-ek (CPIE misio arduraduna) gidatuko duen ateraldira Sarako lezeen inguruko ondare natural eta arkeologikoa ezagutzera, goiz batean zehar !

Ibilaldiak Atxuriako gainetara eramanez gaitu. Lehengo artzainen presentziaren aztarnak ikusiko ditugu : Trikuharriak, harrespilak... gure mendietako paisaiak moldatu dituzten hainbat monumentu !

Bazter horretan, lehorra edo hezea izanik, segatik makurtuak, azidoak edo karetsuak, flora eta fauna berezia atxematen ditugu. Hemengo habitat naturalen aniztasunaren artean, artzainen bizimoldeari lotutako praktika tradizionalak moldatu dituzten gure mendiko larreak, zohikaztegiak, pentzeak eta soropilak ikusiko ditugu ere bai. Gizakiaren eta mendiaren arteko elkarbitza ulertuko dugu.

Iragana ulertzeko parada paregabea, etorkizuna hobeki eraikitzeko...

Xehetasun guztiak : https://www.grottesdesare.fr/eu/agenda_eu.php#rando

Ateraldia ezeztatua izaten ahal da baldintza honetan :

- Jende kopurua ttipiegia bada ;
- Eguraldiak ez baditu baldintza onak eskaintzen (euria, lanbroa, eguraldi txarra...).

Ontsa prestatzeko :

- Mendiko zapatak ezarri.
- Pentsatu ur botila bat hartzea.
- Eguraldiaren arabera jantziak hartu : euri-arropa, txapela, eguzki betaurrekoak, eguzki krema...
- Kontraindikazio medikorik ez izan.

IZENA EMAN :

Lekuak mugatuak dira (25 pertsona baizik ez ditugu onartzen), beraz beharrezkoa da aintzinetik izena ematea (urririk) sarakolezea@gmail.com helbide elektronikoaren bidez edo gure webgunetik :


<https://reservation.grottesdesare.fr/rando2022> .

AGORRILAK 19

INGURUMENA EZAGUTZEKO IBILALDIA

Zatoz goiz batez Sarako lezeen inguruko
ondare natural eta arkeologikoa
deskubritzera !

ESKANEATU NAZAZU !



IMANOL AMESTOY-EK (CPIE EUSKAL ITSASBAZTERRA) GIDATURIK *

- Iraupena : 9:00etatik 12:30ra | Abiatzea : Sarako lezeetatik.
- Urririk, bainan izena eman behar da (leku kopuru mugatua).
- Xehetasunak eta izen-ematea > <https://labur.eus/ibil22> .

* Eguraldiak baldintza onak eskaintzen baditu.

